

Segurua al da eskolara bakarrik joatea? Generoaren eragina haurren mugikortasun autonomoan

Idoia Legorburu, Nahia Idoiaga, Israel Alonso, Naiara Berasategi
Euskal Herriko Unibertsitateko irakasleak (UPV/EHU)

Zenbait herrialde eskolarako bide aktibo eta autonomoak bultzatzeko proiektuak sustatzen hasi dira. Ikerketa honen helburua da «Eskolabideak» ekimenean parte hartzen duten haurren mugikortasun autonomoarekiko segurtasun-irudikapenak aztertzea, bereziki segurtasun-hautemate horiek haurren generoak baldintzatzen dituen ikertuaz. Hori aztertzeko Bizkaiko 1.002 haurren ahotsak jaso dira eskola-bide horietan hautematen duten segurtasunari buruz. Erantzunak Iramuteq softwarearen bidez aztertu dira. Emaitez generoen arteko desoreka erakutsi dute, non neskek pertsona ezezagunekiko beldurra era argiagoan hautematen duten. Horrez gain, mutilek komunitatearen laguntzarekiko konfiantza errotuagoa plazaratu dute neskekin alderatuta, kaleetan laguntzeko prest dauden pertsonak aurkituko dituztela aurreuposatuaz.

GAKO-HITZAK: Bide-mugikortasun autonomoa · Haurrak · Hezkuntza · Generoa.

Is it safe goto school alone? Gender impact on autonomous child mobility

Many countries began to encourage projects to promote active and autonomous pathways to school. The aim of this study is to analyse the representations of safety regarding autonomous mobility of children participating in the Eskolabideak initiative, in particular on the study of whether these perceptions of safety are conditioned by children's gender. The voices of 1002 children from Bizkaia have been collected on the safety they perceive on these school routes. Answers were analysed using Iramuteq software. The results show a gender imbalance in which girls perceive fear of strangers more significantly. In addition, boys have shown a more deep-rooted trust in the help of the community compared to girls, assuming that they will find people on the streets willing to help them.

KEY WORDS: Autonomous mobility · Childhood · Education · Gender.

1. Sarrera

Bide-mugikortasun aktiboa eta independentea haurrek helduen laguntza, presentzia edo gainbegiratze gabe beren herri, hiri edo auzoetatik mugitzeko duten gaitasuna da (Hillman et al., 1990). Zenbait azterlanek diotenez, azken bi hamarkadetan haurrek oinez eta bizikletaz autonomoki egindako joan-etorriak izugarri murriztu dira, aldi berean gurasoekin eta, bereziki, autoz egindako joan-etorriak gailendu direlarik (Fyhri et al., 2011; Van der Ploeg et al., 2008).

Ohitura-aldaketa honek ondorio zuzenak izan ditu haurren ongizate fisiko, psikologiko eta sozialean. Jarduera fisikoaren tasa baxuak haurren osasunerako balizko arriskuekin lotu dira (Pardos-Mainer et al., 2021; Rodriguez-Torres et al., 2020). Izan ere, haur eta nerabeen gehiegizko pisuaren prebalentziak gora egin du (Sirard & Slater, 2008), eta era berean, hipertentsio arteriala, arazo kardiobaskularrak edo hezur-gaitzak eragin ditu, hainbat artikulutan baieztatzen denez (Andersen et al., 2006; Biddle et al., 2004; Leary et al., 2008; Pan & Pratt, 2008; Sanigorski et al., 2008; Sugiyama et al., 2012).

Dimentsio fisiologiko batetik haratago, maila psikologikoan beste hainbat ikerketak baieztatu dute bide-mugikortasun autonomoak haurren zorientasun-tasa ere handitzen duela (Chillón et al., 2017; Leung & Loo, 2017; Ramanathan et al., 2013; Ruíz-Ariza et al., 2015; Westman et al., 2017;) eta estres- eta larritasun-mailak txikiagotzen dituela (Chillón et al., 2017; Ruiz-Ariza et al., 2015).

Eremuakademikoaridagokionez, hainbat ikerketak frogatu dute bide-mugikortasun autonomoa duten haurrek errendimendu akademikoa (García-Hermoso et al., 2017) edo eskola-emaizta (García-Hermoso et al., 2017; Westman et al., 2017) hobetu ditzaketela. Ildo berean, frogatu da bide-mugikortasun independenteak espazio-kontzientzia, orientazio-trebetasunak eta zirkulazio-arauen ulermena ere hobetzen dituela (Tranter & Whitelegg, 1994; Rissotto & Tonucci, 2002).

Horrez gain, dimentsio sozial batetik aztertuta, desplazamendu autonomoak gizarte-harremanak ere hobetu ditzake (Jones & Ogilvie, 2012). Besteak beste, helduekin, ikaskideekin eta inguruko pertsonekin interakzio handiagoa eta sozializazio aberatsagoa bultzatzen baitu (Prezza et al., 2001; Jones & Ogilvie, 2012); auzoarekiko harremanak eta komunitatearekiko zentzua handitzen baititu (Prezza eta Paccilli, 2007) eta arazoak konpontzeko eta erabakiak hartzeko trebetasunak garatzen laguntzen baitu (Badland et al., 2011; Carver et al., 2008; Mackett et al., 2007).

Beraz, aipatu berri ditugun ikerketek argi uzten dituzte mugikortasun aktibo eta autonomoak haur eta gazteengan dituen onurak. Halere, bide-mugikortasun autonomoaren erabilera-mailari erreparatuz gero, ezberdintasunak topa daitezke irizpide biologiko zein pertsonal batzuen arabera. Eskolara ume bakoitzak duen distantzia, adibidez, erabakigarria da eskolara era aktibo eta autonomoan joatea aukeratzeko, distantzia luzeagoa dutenek ibilgailu motorizatuan eta helduekin joatea aukeratzeko dutelarik (Larsen et al., 2016). Era berean, neskek eta haur gazteenek bide-mugikortasun tasa baxuagoa dute (Fyhri et al., 2011; Lam and Loo, 2014).

Zehazki, generoari dagokionez hainbat ikerketak aurkitu dute mutilek mugikortasun autonomoaren maila altuagoak izaten dituztela (Fyhri & Hjorthol, 2009; Villanueva et al., 2014), halere, gutxi ikertu izan dira genero-ezberdintasun horien arrazoiak.

Ikuspegi orokor batetik, haurren bide-mugikortasun autonomoa, batez ere, gurasoen pertzepzio, kultura, gizarte-arau eta auzo-ingurunearen segurtasun-hautematearen eraginaren mende dago (Foster et al., 2014). Hau da, haurrak autonomoki eskolara joatea, bereziki, gurasoek horretarako baimena emateak edo ez emateak baldintzatuko du (Prezza et al., 2005; O'Connor eta Brown, 2013), baita haurrek ibilbide horrekiko duten segurtasun-hautemateak ere (Ding et al., 2012; Legorburu et al., 2022). Azken urteotan, zentzu honetan ere aldaketak izan dira gizartean, haurren babes gorenaren izenean haurren bide-mugikortasuna eta jolas-jarduerak leku itxi eta kontrolatuetara mugitu dituzte gurasoek (Bhosale et al., 2017; Watchman & Spencer-Cavaliere, 2017), haurren segurtasunarekiko eta erantzukizunarekiko kezka gero eta handiagoaren ondorioz (Lee et al., 2015; Wyver et al., 2010). Horrek guztiak baldintzatu egin du haurren kaleko jolas eta mugimendu librea, baita haurrek berek duten inguru hurbilarekiko segurtasun-hautematea ere (Jelleyman et al., 2019). Halere, beldur edo mugikortasunean muga horiek ez dituzte era berean ume guztiak baldintzaten, konkretuki, arrisku-egoeren pertzepzioa nabarmenagoa da haur nesken gain eta, ondorioz, eragin handiagoa du nesken eguneroko autonomian (Murray, 2009; Foster et al., 2014). Pertzepzio hori zuzenean jazarpen-esperientzietan eta gertuko pertsonen edo komunikabideen bidez ikasitakoetan oinarritzen da (Delgado & Aguerri, 2018).

Testuinguru honetan, eskolarako ibilbide aktibo eta autonomoak dira gurasoek jarduera fisikoa sustatzeko, autonomia garatzeko edo seme-alaben ongizate-maila handitzeko duten aukera nagusietako bat (Davison et al., 2008; Riazi et al., 2019). Hori dela eta, azken hamarkadetan proiektu ugari sortu dira nazioarteko esparruan, eskolarako bide aktibo eta autonomoak sustatzen dituztenak. Lehenengoan artean, Italiako Fano hiriko «Eskolara bakarrik goaz» proiektua aurki dezakegu. Proiektu horretan, eskola-ibilbide independentea sustatzeaz gain, mugimendu autonomoa eta haurrek hirian parte hartzea proposatzen da (Tonucci, 1997). Beste esperientzietako bat Odense hirian (Danimarka) sustatutakoa da; *Safe routes to school in Odense, Denmark* (Tolley, 1997) izena du, eta haurrei eskolara oinez joaten laguntzen zieten neurri espezifikoak finkatu ziren bertan. Lehen esperientzia horien ondorioz, antzeko proiektuak sortu ziren beste herrialde batzuetan, hala nola Zeelanda Berria, Estatu Batuetan, Kanadan edo Espainian (Valverde, 2018).

Euskal Herrian ere tankera horretako proiektuak martxan jarri izan dira hainbat herri eta hiritan. 2014an, hainbat erakunde eta udal elkartu ziren lankidetzara sare bat sortzeko, Haurren Hirien Sarea (HHS) deitu zitzaizolarik. HHSren helburu nagusia egungo erronkei aurre egiteko eta herritar guztiei ikasteko prozesuak ahalbidetuko dizkieten inguruneak sortzea lirateke. Abiapuntu gisa, HHSk bereziki bi ekimen mota sustatzen ditu: herri eta hirietan Haurren Kontseiluak sortzea, hau da, haurren ikuspegiaren alkatetzei helarazteko organo aholku-emaitza sortzea; eta «Eskolabideak» proiektuak, haurrak era autonomo eta aktiboan herri eta hirietan eskolara joateko proiektuak, alegia (Haurren Hirien Sarea, 2021). Sare horren

bidez, udalerriek beste agenteen laguntza dute proiektuari buruzko aholkularitza, prestakuntza eta zabalkundea jasotzeko, eta horrek proiektua gauzatzea, garatzea eta helburuak betetzea erraztu izan du (Haurren Hirien Sarea, 2021).

Ildo bera jorratuz, 2016an Eusko Jaurlaritzak gida bat argitaratu zuen ikastetxeei eta haietan lanean dauden Gurasoen Elkarteei (IGE) «Eskolabideak» proiektuak garatzen laguntzeko (Nuin et al., 2016). Horrez gain, urtero laguntza ekonomikoen deialdia egin du ekimena martxan jarri nahi duten ikastetxe eta herrientzat.

Beraz testuinguru honetan argi geratu da haurren ongizatean mugikortasun autonomoak duen onura, baina gutxi ikertu izan da zer mailatan iruditzen zaien haur horiei segurua eskolara bakarrik joatea edo ez joatea, eta are gutxiago zer-nolako pisua zuen segurtasun-hautemate horretan generoak. Era berean, iker-metodoari dagokionez, alde zurretiko ikerketa gehienek haurrei edo haien gurasoei pasatako galdetegiak erabili izan dituzte informazioa biltzeko, baina oso gutxitan jaso izan dira gai honi buruz haurren ahotsak, libreki beren erantzunak plazaratzeko aukera emanaz (Legorburu et al., 2022).

Honenbestez, ikerketa honen helburu nagusia izango da «Eskolabideak» proiektu batean parte hartzen duten haurren segurtasun-irudikapena aztertzea, horretarako haurren ahots propioak bilduaz, hautemate horietan generoak duen eragina ere aztertuz.

2. Metodologia

2.1. Parte-hartzaileak

Ikerlan honetan 1.002 haurrek hartu zuten parte, eta parte-hartzaileen batez besteko adina 11,26 urtekoa izan zen (DT = 4,97), 8-16 urteko adin-tartearekin, beraz, haurren (LHko ikasleak) eta gazteen (DBHko ikasleak) arteko uztarketa egin da. Generoaren arabera banaketari dagokionez, parte-hartzaileen % 49,3 neskak ziren eta % 50,7 mutilak. Lagineko haur gehienak heldu batek lagunduta joaten ziren eskolara (% 66), eta soilik parte-hartzaileen % 33 joaten ziren modu autonomoan eskolara.

2.2. Prozedura

Datu-bilketa 2020ko urtarriletik martxora bitartean egin zen Bizkaiko hamar ikastetxetan, herri handi eta hirietakoak denak. Laginketarako erabilitako ikastetxe guztiek ikastetxerako ibilbide aktibo eta osasungarriak sustatzeko «Eskolabideak» ekimenen batean parte hartzen zuten. Datu-bilketa EHUko Etika Batzordeak agintzen dituen irizpideak kontuan hartuta egin da.

2.3. Instrumentua

Datuak biltzeko, haurrei banan-banan era askean erantzun zezaketen honako galdera planteatu zitzaizen: «Uste duzu zure herria leku segurua dela haurrak

bakarrik ibiltzeko? Zergatik?». Galdera horren erantzunaz gain, haur bakoitzaren datu soziodemografikoak (adina, sexua eta ikastetxearen izena) eta eskolara joateko ohiturak (ia eskolara helduen laguntzarekin edo laguntza gabe zihoazen) ere galdetu zitzaizkien galdetegi bidez. Galderak haurrek erantzun zituzten, haien esperientzia eta ezagutzekin, haien errealitatea ulertu eta hausnartzeko subjektutzat hartuta (Shabel, 2014).

2.4. Datu-analisisia

Datu-analisisen fasean segurtasunari buruzko galdera askean lortutako neska eta mutilen erantzunak analisi lexikal bidez aztertu ziren. Analisi lexikal hori egiteko Reinert metodoan oinarritutako Iramuteq softwarea erabili zen (Reinert, 1983; 1990), horrela testu-analisisietan epaileen interpretazioaren subjektibotasunari egotzi ohi zaizkion fidagarritasun- eta baliozkotasun-arazoak ekiditeko (Klein & Likata, 2003; Reinert, 1996). Software horren helburu nagusia da testu bat kuantifikatu eta haren egitura garrantzitsuenak azalerazea, horrela, testu-datueta informazio oinarritzakoa baliatuz. Egitura horiek hitzek testuan duten banaketarekin zuzenki lotuta daudela frogatu da (Reinert, 1996), banaketa hori ia inoiz zorizkoa ez delarik. Deskribatzea, sailkatzea, asimilatzea edota testu bat automatikoki sintetizatzea dira Iramuteq-en interes nagusiak.

Softwareak burututako analisisaren lehenengo urratsa corpusa testuinguruko oinarritzako unitatetan (*Elementary Contextual Units*, ECU) banatzea da, zeinak esaldi batez edo biz osatuta dauden (30-50 hitz inguru) (Kronberger eta Wagner, 2000). ECUak eta hitz-erroak gurutzatu egin dira kontingentzia-taula bat sortzeko, zeinak hiztegiaren banaketa azalduko duen ECUekiko. Kontingentzia-taula horretatik abiatuta, distantzia karratuen matrize bat sortzen da, non, bi ECU hurbilekoak izango diren, aztertutako hitzen bat partekatzen badute (Klein eta Licata, 2003; Reinert, 1996). Ondoren, kluster-analisi hierarkiko beherakor bat egiten du Iramuteq-ek aipaturiko distantzia karratuen matrizearekin. Egindako analisisan mutilen eta nesken erantzunak era bananduan aztertu izan dira, ondoren bi taldeen arteko alderaketa egiteko asmoz. Horretarako jasotako erantzunak genero-aldagaiaren bidez banandu eta kodifikatu ziren.

Reinert metodoarekin egindako beste ikerketa batzuetan bezala (Idoiaga eta Belasko, 2018; Vizeu & Bousfield, 2009), klase bakoitzeko hitz garrantzitsuenak hiru irizpideren bidez sailkatu ziren: 1) Hitzaren errepikakortasunaren maiztasuna klasean bertan 5 baino handiagoa izatea; 2) khi karratuaren asoziazio-probaren balioa klasearekiko $X^2 \geq 3.89$ [$p = .05$]; $df = 1$ baino handiagoa izatea; eta 3) hitz horren % 50 edo gehiago klase horri egokitu izana.

Klase lexikalak haurren erantzunetan errepikakorak diren gai nagusiak identifikatu ostean, aldagai «pasibo»ekin (aldagai askeak) lotura esanguratsua duten azter daiteke. Gure kasuan, aldagai pasiboak haien herria segurutzat edo ez-segurutzat jotzea, adina eta eskolarako bidea bakarrik edo heldu batek lagunduta egitea izan ziren. Horretarako, haurren erantzun bakoitza datu horiekin kodifikatuta sartu zen Iramuteq programan, eta horrela ECU bakoitza informazio horrekin lotuta

geratu zen. Gainera, khi karratu estatistiko bat ere kalkulatu zuen Iramuteq-ek, klase bakoitzak aldagai askearekin duen lotura zehazteko. Horrela, ikertzaileak klase eta estatistika-irizpide batzuk lortzen ditu hitz tipiko eta testu tipikoen segmentu (gure kasuan haurren erantzun) moduan. Horrek klaseak edo gai nagusiak mundu lexikal gisa interpretatzeko oinarria eskaintzen du. Azken fase horretan, mota bakoitzeko etiketak edo izenburuak sortzeko, ikerketa honetan prozesu sistematiko bat gauzatu da. Prozesu horretan, ikertzaileetako bik klase bakoitza modu independentean izendatu dute, hitz eta haurren erantzun elkartuetan oinarrituta. Hirugarren ikertzaileak azken etiketa bat sortu du eta hiru ikertzaileek onartu dute.

Bestalde, antzekotasun lexikoaren azterketa ere egin da Iramuteq-en bidez. Analisi mota horrek corpora bere osotasunean aztertzen du, erantzunak parte-hartzaile (subjektu) batengandik edo beste batengandik datozen kontuan hartu gabe. Orobat, zenbat eta gehiagotan tratatu ziren bi elementu modu berean, orduan eta hurbilago egongo dira aipatutako objektuaren irudikapen-egituran (Molina-Neira, 2017).


3. Emaitzak

Aurreko atalean aipatu den bezala, ikerketa honetan nesken eta mutilen erantzunak bereizita aztertu ziren (ez zen haur ez-bitarrik egon ikerketan).

3.1. Nesken segurtasunari buruzko hautemateak

Corpusak guztira 5.146 hitz izan zituen eta horietako 3.242 hitz bakarrak ziren, 1. irudiko dendrograman ikus daitekeenez. Kluster-analisiaren banaketari jarraituz, lau mota edo gai nagusi eratorri ziren, neskek beren herri edo hiriko segurtasuna edo segurtasun falta irudikatzen zuten moduari buruzkoak.

Beheranzko sailkapen hierarkikoaren banaketari jarraituz, lehenengo klasea «Pertsona gaiztoak» gisa izendatu zen. Izan ere, klase horretan neskek kalean min egin diezaiekeen jendea (gizonak, gaiztoak, arraroak edo arriskutsuak) egoteak sortzen dien segurtasun faltaz hitz egiten dute. Erantzun-corpus guztiarekiko lehenengo klase honek % 44,81eko pisu erlatiboa du, nesken erantzunen artean gairik pisutsuena edo errepikatuena izanik. Aldagai askeekiko loturari dagokionez, beren herria segurua ez zela uste zuten neskek aipatu zuten gehienbat ($p < 0,05$) eta baita adin-tarte ezberdinetako neskek ere, esanguratsuki gehiago aipatu zutelarik 9, 12 eta 15 urtekoek ($p < 0,05$). Hona hemen klase honi estatistikoki esanguratsutasun handinez lotu zitzaizkion haurren erantzunak: «Kalean jende gaiztoa dagoelako eta bahituko nauten beldur naizelako» (neska, 10 urte; $\chi^2(1) = 167,01$); «Pertsona gaiztoak edo arraroak egon daitezkeelako, neskei min egitea gustuko dutenak» (neska, 10 urte; $\chi^2(1) = 157,90$); «Kalean haiekin eramán, ukitu edo gauzak esan diezazkizuketen gizon gaiztoak egon daitezkeelako» (neska, 9 urte; $\chi^2(1) = 156,15$).



1. irudia. Nesken erantzunen corpusaren beheranzko taldekatze hierarkikoaren dendrograma asoziazio handiena duten hitzekin $\chi^2(1)$, $p < 0,001$, Reinert metodoaren bidez ateratakoak (Iturria: Sorkuntza propioa).


Bigarren klaseari «Herri lasaia» izena jarri zitzaion. Kasu honetan neskatilek beren herria leku lasai gisa hautematen dute, bereziki ez oso handia izateagatik eta galdu gabe ibil zitekeelako. Klase honek corpus osoari dagokionez % 27,71ko pisu erlatiboa izan zuen, eta gehiago aipatu zuten beren herria segurua dela uste zuten neskek ($p < 0,05$). Horrez gain, 10 eta 13 urtekoak ($p < 0,05$) eta eskolara bakarrik zihoazenak ($p < 0,05$) ere esanguratsuki lotu ziren klase honetara. Hona hemen klase honetan neskek plazaratutako erantzun guztien artean esanguratsuenak: «Txikia delako eta txikia denez seguruagoa delako, ez ezagutzen ez duten jende asko dagoen hiri handiak bezala» (neska, 12 urte; neska, $\chi^2(1) = 107,29$); «Baietz uste dut, herri txikia delako eta galtzea hain erraza ez delako, baina leku guztietan bezala kontuz ibili behar dugu oso txikia bazara hobe da bakarrik ez irtetea kalera. Nire ustez, oraindik ez daukat adinik beti bakarrik kalera irteteko» (neska, 11 urte, $\chi^2(1) = 67,86$).

Hirugarren klaseari «Segurtasun poliziala» deitu zaio, bertan polizia segurtasun-iturri gisa irudikatzen baita. Klase honen pisua %7,47koa da, eta beren herria segurua dela uste zuten ($p < 0,01$) eta 8 eta 9 urteko neskek ($p < 0,05$) aipatu zuten gehienbat. Hona hemen klase honetako erantzun esanguratsuenetako batzuk: «Polizia gertu dago» (neska, 8 urte); $\chi^2(1) = 214,23$; «Trafiko handia dagoenez, beti dago polizia bat, eta horrek segurtasuna ematen du» (neska, 11 urte; $\chi^2(1) = 202,39$).

Azkenik, laugarren klasea honela etiketatu da «Bide-segurtasun falta». Izan ere, bertan, neskatoek trafikoaren ondorioz hautematen dituzten arriskuak plazaratu dituzte, arriskuok beren segurtasun-sentsazioa murrizten dutela azpimarratuaz. Klase honen pisua % 6,82koa da, eta beren herria segurua ez dela uste zuten neskek aipatu zuten gehienbat ($p < 0,001$) eta baita 9 eta 10 urtekoek ere ($p < 0,05$). Hona hemen klase honetako erantzun esanguratsuenetako batzuk: «Auto batzuek ez dituzte zebra-bideak errespetatzen» (neska, 10 urte; $\chi^2(1) = 306,77$); «Nahiz eta zebra-bideetan begiratu oso azkar badoa autoak harrapatu egiten zaitu!» (neska, 10 urte; $\chi^2(1) = 303,42$).

3.2. Mutilen segurtasunari buruzko hautemateak

Corpus osoa 4.600 hitzek osatu zuten eta horietako 398 hitz bakarrak ziren. 2. irudiko dendrograman ikus daitekeenez, klusterraren analisiaren banaketari jarraituz, lau klase edo gai nagusi atera ziren, haurrek beren herrian edo hirian segurtasuna edo segurtasunaren gabezia irudikatzen zuten moduari buruzkoak.



2. irudia. Mutilen erantzunen corpusaren beheranzko taldekatze hierarkikoaren dendrograma asoziazio handiena duten hitzekin $\chi^2(1)$, $p < 0,001$, Reinert metodoaren bidez ateratakoak (Iturria: Sorkuntza propioa).

Beheranzko sailkapen hierarkikoaren banaketari jarraituz, lehenengo klasea neskek aipatutakoaren antzekoa izan zen, eta ondorioz berau ere «Pertsona gaiztoak» gisa izendatu zen. Hala ere, kasu honetan, klase honen pisu erlatiboa corpus osoarekiko % 19,20 izan zen, neskek eman zioten pisuaren erdia baino gutxiago. Gainera, kasu honetan adin-tarteari dagokionez, mutil gazteenek aipatu zuten batik bat, hau da 8 eta 9 urtekoek ($p < 0,01$). Hurrengo lerroetan klase honetako erantzun esanguratsuenetako batzuk ikus ditzakegu. Ikusiko dugunez, nahiko orokorrak dira, eta jende gaiztoari buruzkoak dira, gehiegi zehaztu gabe zergatik uste duten horiek gaiztoak direla: «Jende txarra dagoelako» (mutila, 9 urte; $\chi^2(1) = 167,31$); «Pertsona gaiztoak topa ditzakezulako» (haurra, 8 urte; $\chi^2(1) = 158,35$).

Kluster-banaketari jarraituz, bigarren klaseari dagokionez, «Inoiz ez da ezer gertatzen» izena jarri zaio. Izan ere, kasu honetan, herria ezer txarrrik gertatzen ez den leku gisa deskribatu zuten mutikoek. Gainera, ezer txarra gertatuko balitzaie jendeak lagunduko dituela uste dute eta, beraz, herrikideengan konfiantza izan dezaketela. Klase honek corpus guztiarekiko % 19,20ko pisua du, eta gehiago aipatu zuten beren herria segurua ez dela uste zuten hurrek ($p < 0,001$) eta baita 12 eta 16 urtekoek ere ($p < 0,05$). Hona hemen klase honetako erantzun esanguratsuenetako batzuk: «la beti bakarrik joaten naiz lagunekin Leioara, eta inoiz ez zait ezer gertatu» (mutila, 12 urte; $\chi^2(1) = 354,88$); «Jende asko nire laguna delako eta ez delako inoiz ezer gertatzen» (mutila, 12 urte; $\chi^2(1) = 188,79$); «Jendea dagoelako eta zerbait gertatzen bazaizu, lagundu egingo dizutelako» (mutila, 10 urte, $\chi^2(1) = 182,00$).

Hirugarren klasea ere neskek aipatzen zutenaren antzekoa da, eta, beraz, «Herri lasaia» izena hartu du. Kasu honetan, klase honek % 41,18ko pisua du, nesken kasuan baino ia bi aldiz gehiago, eta beren herria segurua zela uste zuten hurrek zein sinesten ez zutenek aipatu zuten. Baita eskolara helduen laguntzarik gabe joaten ziren mutilek ere ($p < 0,05$). Bukatzeko klase hau ez zen adin-tarte batekin lotu, beraz, hortik ondoriozta daiteke adin guztietako hurrek antzeko mailan aipatu zutela. Hona hemen klase honetan hurrek aipatutako erantzun esanguratsuenetako batzuk: «Leioa oso leku lasaia da, eta arraroa da zerbait gertatzea» (mutila, 13 urte; $\chi^2(1) = 54,89$); «Nire ustez ez dago arriskurik, ez delako oso handia, baina ez ditut auzo guztiak ezagutzen» (mutila, 11 urte; $\chi^2(1) = 54,51$); «la leku guztietara modu seguruan joan zaitezke, pertsona helduak edo nerabeak daudelako. Hilerriaren kasuan edo txakurren tokian hobe da bertatik bakarrik ez pasatzea, baina beste lekuetatik ondo joan zaitezke» (mutila, 11 urte; $\chi^2(1) = 51,81$);

Azkenik, laugarren klasea ere nesken erantzunekiko antzekoa da eta, horregatik, «Segurtasun poliziala» gisa izendatua izan da. Kasu honetan, azken klase honek % 11,76ko pisua du, neskek aipatzen zutenean baino 3 puntu handiagoa, eta gehienbat beren herria segurua zela uste zuten mutilek aipatu zuten ($p < 0,001$) eta baita eskolara nagusiek lagunduta zihoazenek ($p < 0,05$) eta 10 urtekoek ($p < 0,05$) ere. Hona hemen klase honetako erantzun esanguratsuenetako batzuk: «Txikia delako eta polizia dagoelako» (mutila, 10 urte; $\chi^2(1) = 234,09$); «Ez dagoelako ia istripurik, ez lapurretarik, ezta poliziak etorri behar duen kasurik ere» (mutila, 12 urte; $\chi^2(1) = 170,41$); «Bi polizia daudelako» (mutila, 11 urte; $\chi^2(1) = 140,03$).

3.3. Antzekotasun lexikoaren analisiak

Bigarrenik, klasetan banatzenetik harago, corpuseko hitz guztien arteko burutazioak islatuko zituen irudi bat sortzeko, antzekotasun lexikoaren analisi bat egin da. Corpusaren hitzak plano komun batean nola zeuden lotuta aztertzea da asmoa. Horretarako, antzekotasun lexikoaren analisisia 10 baino maiztasun handiagoa duten hitzekin bakarrik egin da. Nesken emaitzak 3. irudian beha daitezke eta mutilenak berriz 4. irudian.



3. irudia. Nesken hitzekiko antzekotasun lexikoaren analisiaren emaitzak.

Hirugarren irudian ikus daitekeen bezala, nesken segurtasunari buruzko irudikapenen nukleo edo erdigunean pertsona edo jende gaiztoak daude. Izan ere *Jendea* hitzetik eratorriz babestu ditzaketan *laguna* edo *poliziak* aipatzen dituzten arren, bereziki nabarmentzen dira *beldurra*, *arriskua*, *arriskutsua*, *gaua*, *lapurketa* edo *laguntza* bezalako hitzak. Ildo berari jarraikiz, *gaizto* hitzetik ere kalean bakarrik kontu handiz ibili behar dela eta arriskuak daudela eratoritzen da, besteak beste bahitu edo lapurtuak izatekoa. *Gaizto* hitz horri lotuta trafikoarekin lotutako arriskuak

ere agertzen dira, zebra-bideak ez errespetatuz gero zapaldua izatea, adibidez. *Pertsona* hitzari lotuta min egin diezaieketen pertsona zoroak aipatzen dituzte. Azkenik, nukleo horren goi-partean *segurtasun* hitzari lotuta, *herri lasaia* izatea, *aita* eta *ama* eta *arazo gutxi* egotea aipatzen dira.



4. irudia. Mutilen hitzekiko antzekotasun lexikoaren analisiaren emaitzak.

Laugarren irudiak, berriz, mutilen irudikapena erakusten digu, kasu honetan *jende* eta *segurtasun* hitzek osatzen dituzte bi nukleo nagusiak. *Jende* hitzaren inguruan, garrantzi gutxiagoz bada ere, *arritsu*, *lapurreta* eta *bahiketak* aipatzen dira, baina baita laguntzeko prest dauden pertsonak ere, *bakarrik* uzten ez zaituzten lagunak eta kaleko *jende* atsegina.

Segurtasun nukleotik hainbat adar ateratzen dira. Hasteko mutilek beren auzo edo etxeak gustuko leku lasai gisa definitzen dituzte. Gainera, beldurra segurtasunari lotuta aipatzen duten arren, ez dute beste ezerekin lotzen, nahiz eta trafikoagatiko arritsua aipatzen duten. Bukatzeko, herri txiki edo handia izateak seguru izatean edo ez eragin dezakeela irudikatzen dute bereziki bide-segurtasunari loturik (semaforo, zebra-bide).

4. Eztabaida eta ondorioak

Artikulu honen helburu nagusia izan da hurrek bide-mugikortasun autonomoa-
rekiko duten segurtasunaren irudikapena aztertzea. Zehazki, eskolara bakarrik
joatean irudikatzen dituzten segurtasun gabezia edo indarrei buruzko neskato
eta mutikoen ahotsak jasotzen ditu azterlan honek. Ikerketaren ekarpen nagusia
preseski hau da; mila haur baino gehiagoren ahotsetatik abiatuz, haien bide-
mugikortasunean genero-aldagaiak sortutako soslaiak islatzen dituela.

Ikerketako emaitzak begi-bistaz aztertuz gero, nahiko nabarmena da, nahiz eta
neskato eta mutikoen aipatutako gai nagusiak parekoak edo antzekoak izan, ageriko
ezberdintasunak daudela gai horiei ematen dieten garrantzian. Aztertutako laginean
argi nabarmendu da neskek ezezagunenganako duten kezka mutilekin alderatuta
askoz handiagoa dela. Izan ere, nesken kasuan beren ekarpenen % 44,81 kalean
aurki zitzaketan «pertsona gaizto» horiei buruzkoak ziren; mutilen kasuan, aldiz,
gai honek % 19,20ko pisua zuen, erdia baino gutxiago. Gainera, mutilek pertsona
gaiztoen presentzia hori aipatu arren, ez dute segurtasunik ezarekin lotzen, klase
hori segurtasun-hautemate positiboarekin esanguratsuki lotua baitago.

Beraz, beldurraren pertzepzioa, eta zehazki, pertsona gaiztoenganako kezka,
neskengan txiki-txikitatik sakonki errotuta dagoen sentimendua dela argi adierazi
dute emaitzek. Zergatiak aldagai askotarikoak izan ditzakeen arren, gizarte
patriarkalaren zeharkako mezuak eta, konkretuki, nesken zaurgarritasunari buruzko
gurasoen usteak eragin handia izango dute hautemate horretan. Izan ere, hainbat
ikerketak adierazi dute gurasoek ezezagunei zieten beldurra handiagoa zela beren
alabekiko semeekiko baino (Carver et al., 2008; Ding et al., 2012; Hillman et al.,
1990). Gainera, beste ikerketa batzuek adierazi dute haiekiko beldur gutxiago
izatearen ondorioz, mutikoen askatasun handiagoa eta, beraz, bide-mugikortasun
autonomoagoa izan ohi dutela (Carver et al., 2013; Prezza et al., 2001), eta neskei,
berriz, etxetik ateratzean kontuz ibiltzeko eskatzen zaie, sarri bide-mugikortasun
autonomorako aukera gutxiago emanaz (Foster et al., 2014).

Horrez gain, emaitzek argi adierazi dute beldurrekiko genero-ezberdintasunak
urteetan zehar nabarmendu egiten direla. Hau da, haur gazteetan bai neskek bai
mutilek «pertsona gaizto» horiei lotutako segurtasun falta aipatzen dute. Baina
nagusitzen diren heinean mutilek gai hau aipatzeari uzten dioten bitartea, nesken
diskurtsoan mantendu egiten da. Hala ere, horrek ez du esan nahi urteekin neskek
bide-mugikortasun autonomoagorik lortzen ez dutenik. Beste ikerketa batzuek
aipatzen dute (Medeiros et al., 2021) adinarekin nesken ibiltzeko independentzia
mutilena baino gehiago areagotzen dela. Hemen kokka litzateke bide-mugikortasun
autonomo horren baldintzak aztertzea, zehazki neskek, bai gazte baita helduek
ere, bide-mugikortasun autonomoa beldurretik bizi duten ikertuz, hainbat ikerketak
adierazi duten bezala (Kearl, 2010; López, 2012; Rodó-de-Zárate eta Castany, 2016).
Izan ere, gure emaitzek adierazi dute, gainera, mutilen % 4,18k beren herria lasai
gisa katalogatzen dutela eta nesken kasuan ehuneko hori % 27,71ra jaisten dela.
Halere, bi generoen kasuan herri lasaiaren ideia nabarmenki gehiago aipatzen dute
eskolara bakarrik doazenek.

Ikerketa honetako emaitzek adierazitako beste datu garrantzitsu bat zera da, mutilek duten segurtasunaren pertzepzioan kaleko jendeak lagunduko dituelako hautemateak duen indarra. Hau da, mutilek kalean arazoren bat izatekotan auzokideen laguntza jasoko dutela aipatzen dute. Neskek, berriz, ez dute kalean horrelako laguntzarik sumatzen eta, hortaz, kaleak arriskutsuagoak hautematen dituzte. Beste ikerketa batzuek ere aipatu dute kalean komunitateetan zaintza pasiboa izateak, edo kalean begiak izateak, gurasoen segurtasun-sentsazioa eta haurren erosotasuna areagotzen dituela modu independentean mugitzen direnean (Holt et al., 2015; Jamme et al., 2018). Kontrara, ibilbide horiek isolatuta daudenean, segurtasun-sentsazio txikiagoa egon ohi da (Holt et al., 2015). Halere, ikerketa horiek ez dute generoaren arteko desberdintasunik aipatzen eta garrantzitsua litzateke aldagai hori gehitzea, babes sozial horren transmisioa neskengana heltzen ari ez dela nabarmena baita ikerketa honetan. Beraz, ikerketa gehiago beharko lirateke neska eta mutilen arteko desberdintasunak baieztatzeko, baita jatorria ezagutzeko ere.

Haurrei bide-mugikortasun autonomoan segurtasuna ematen dieten faktoreei lotuta, haur gazteenek, genero-ezberdintasunik gabe, polizia eta segurtasun-figurak aipatzen dituzte, eta horiek konfiantzazko inguruneak eraikitzen dituzte haurren ikuspuntutik. Hala ere, nagusitzen joan ahala, gutxiago aipatzen dituzte poliziak eta udaltzainak. Tonuccik (1997) *Haurren Hiria* dokumentuan aipatzen duen gisara, kontrol polizialak baino, herri eta hirietan biztanleen parte-hartzea handitzeak segurtasun nabariagoa dakar kaleetara; izan ere, hala eskatu izan dute mundu osoko auzo gatazkatsuetako biztanleek ere.

Ikerketa honetako emaitzetatik erator daitekeen beste puntu garrantzitsu bat da bide-segurtasunari buruzko neska eta mutilen arteko ezberdintasun nabaria. Nesken erantzunetan maiz agertzen da horrekin lotutako aipamenen bat, *zebra-bide*, *semaforo* edo *errepide* hitzak, besteak beste, bereziki segurtasun falta hautematen duten neskatoen artean. Mutilen erantzunetan, aldiz, ez dago bide-segurtasunari buruzko aipu negatibo esanguratsurik eta beren herria inoiz ezer gertatzen ez den herri gisa katalogatzen dute %27,71k. Ezberdintasun hauek literaturan azertu izan dira, eta Hillman-ek (1990) ziurtatu zuen neskek sentsibilitate, erantzukizun eta norberaren segurtasuna kudeatzeko gaitasun hobekak zituztela, eta, beraz, bide-segurtasunarekiko edo segurtasunik ezarekiko kontzientzia-hartze maila altuagoa dute. Mutilek, aldiz, jarrera arriskutsuak izan eta erabaki irrazionalak hartzeko joera handiagoa dute. Hori dela eta, bide-segurtasunean oinarritutako hezkuntza-baliabideetan ere genero-lanketa bat garrantzitsua litzateke.

Beraz, gure emaitzek adierazi dutenez, herrietako segurtasun eta segurtasun-gabeziari buruzko hautemate ezberdinak daukate haurrek, faktore anitzetan oinarritzen delarik haien gaiarekiko irudikapena. Konfiantzazko edo beldurrezko sentimenduak garatzeko aldagaiak asko badira ere, gure emaitzek adierazi dute bide-mugikortasun autonomoa praktikatzea gakoa dela kalean seguru sentitzeko. Halaber, segurtasun faltaren iturriek ere pisu nabarmena dute, alde aurretik aurkitu delarik familiak segurtasunaren aurrean duen jarrerak pisu handia duela haur eta nerabeen segurtasun-harremanetan (Foster et al., 2014). Gainera, gure emaitzek argi utzi dute segurtasun-hautemate horren eraikuntza ez dela berdina izaten neska eta mutilen irudikapenak aztertzen ditugunean.

Beraz, zenbait ikerketak azpimarratu duten bezala, ezinbestekoa da eskola zein familietan bide-mugikortasun autonomoa sustatzea, haurren garapen pertsonala eta soziala errazteko (Alparone & Pacilli, 2012; Underwood, 2012). Baina, presente izan behar ditugu baita ere bide-mugikortasun independenteari, eta bereziki, berorrekiko segurtasun-hautemateari dagokionez dauden genero-desberdintasunak. Hezkuntza-komunitateak erronka garrantzitsua du haurren eta haien askatasunen berdintasunean, eta, zehazkiago, neskak espazio publikoa modu autonomoan erabiltzeko ahalduntzean, mutilen edo helduen mendekotasunik gabe. Izan ere, bide-mugikortasun autonomoa garapenarekin zuzenki lotua dagoela ere gogoratu beharra dugu eta, beraz, haur guztiei bermatu beharko litzaieke (Herrador-Colmenero et al., 2017). Ildo horretan, eta hemen adierazitako emaitzak ikusita, funtsezkoa da familiek eta eskolek helarazten duten mezua beldurrean oinarrituta egon beharrean, babes eta konfiantza pertsonal zein sozialean oinarrituta egotea (González, 2006). Horretarako berebizikoa da eskoletan azken urteotan martxan jarri diren «Eskolabideak» edo «Bizibideak» proiektuak genero-ikuspegitik lantzea, gertatzen diren genero-ezberdintasunei aurre egiteko eta beharrezkoak diren baliabideak eskaintzeko.

Era berean, beharrezkoa da haurrek, neskek zein mutilek, erabaki helduak eta arduratsuak hartzeko gai izatearen alde lan egitea, gaur egun kalean zein beste espazioetan sor dakizkiekeen zailtasunei aurre egin ahal izateko. Horrela ahalbide-tuko baita, hain zuzen ere, etorkizuneko gizartea komunitate seguru eta bidezkoagoa izango den bermea ematen diguten pertsonak sortzea. Baina horretarako jardun hezitzailea lehen urteetatik abiarazi beharko da, eta haurren bide-mugikortasun autonomo askea eta beldurrik gabekoa horretarako abiapuntua izan liteke, gaur egun dauden genero-ezberdintasunei aurre egitea lortzen baldin badugu behintzat.

5. Bibliografia

- Alparone, F.R. & Pacilli, M.G. (2012): «On children's independent mobility: the interplay of demographic, environmental, and psychosocial factors», *Children's Geographies*, 10(1), 109-122. <https://doi.org/10.1080/14733285.2011.638173>
- Anderson, E.S.; Wojcik, J.R.; Winett, R.A. & Williams, D.M. (2006): «Social-cognitive determinants of physical activity: the influence of social support, self-efficacy, outcome expectations, and self-regulation among participants in a church-based health promotion study», *Health psychology*, 25(4), 510. <https://doi.org/10.1037/0278-6133.25.4.510>
- Badland, H.M.; Oliver, M.; Duncan, M.J. & Schantz, P. (2011): «Measuring children's independent mobility: comparing objective and self-report approaches», *Children's Geographies*, 9(2), 263-271. <https://doi.org/10.1080/14733285.2011.562386>
- Bhosale, J.; Duncan, S. & Schofield, G. (2017): «Intergenerational change in children's independent mobility and active transport in New Zealand children and parents», *Journal of Transport & Health*, 7, 247-255. <https://doi.org/10.1016/j.jth.2017.09.004>
- Biddle, S.J.; Gorely, T. & Stensel, D.J. (2004): «Health-enhancing physical activity and sedentary behaviour in children and adolescents», *Journal of sports sciences*, 22(8), 679-701. <https://doi.org/10.1080/02640410410001712412>

- Carver, A.; Timperio, A. & Crawford, D. (2008): «Perceptions of neighbourhood safety and physical activity among youth: The CLAN study», *Journal of Physical Activity and Health*, 5, 430-444. <https://doi.org/10.1123/jpah.5.3.430>
- , (2013): «Parental chauffeurs: what drives their transport choice?», *Journal of Transport Geography* 26, 72-77. <https://doi.org/10.1016/j.jtrangeo.2012.08.017>
- Chillón, P.; Villen-Contreras, R.; Pulido-Martos, M. & Ruiz, J.R. (2017): «Active commuting to school, positive health and stress in Spanish children», *Sport tk-revista euroamericana de ciencias del deporte*, 6(1), 117-124. <https://doi.org/10.6018/280521>
- Davison, K.K.; Werder, J.L. & Lawson, C.T. (2008): «Peer reviewed: Children's active commuting to school: Current knowledge and future directions», *Preventing chronic disease*, 5(3). http://www.cdc.gov/pcd/issues/2008/jul/07_0075.htm.
- Delgado Ontivero, L.S. & Carreras Aguerri, J. (2018): «Más allá del miedo urbano de la mujer joven. Prácticas de resignificación espacial y supervivencia a la violencia en la ciudad de Zaragoza», *Encrucijadas*, 15, 1-21. https://zaguan.unizar.es/record/75443/files/texto_completo.pdf
- Ding, D.; Bracy, N.L.; Sallis, J.F. et al. (2012): «Is fear of strangers related to physical activity among youth?», *American Journal of Health Promotion*. 26(3), 189-195.
- Foster, S.; Villanueva, K.; Wood, L.; Christian, H. & Giles-Corti, B. (2014): «The impact of parents' fear of strangers and perceptions of informal social control on children's independent mobility», *Health & place*, 26, 60-68. <https://doi.org/10.1016/j.healthplace.2013.11.006>
- Fyhri, A. & Hjorthol, R. (2009): «Children's independent mobility to school, friends and leisure activities», *Journal of transport geography*, 17(5), 377-384. <https://doi.org/10.1016/j.jtrangeo.2008.10.010>
- Fyhri, A.; Hjorthol, R.; Mackett, R.L.; Fotel, T.N. & Kyttä, M. (2011): «Children's active travel and independent mobility in four countries: Development, social contributing trends and measures», *Transport policy*, 18(5), 703-710. <https://doi.org/10.1016/j.tranpol.2011.01.005>
- García-Hermoso, A.; Saavedra, J.M.; Olloquequi, J. & Ramírez-Vélez, R. (2017): «Associations between the duration of active commuting to school and academic achievement in rural Chilean adolescents», *Environmental health and preventive Medicine*, 22(1), 1-7. <https://doi.org/10.1186/s12199-017-0628-5>
- González, F.G. (2006): «¿Qué base tiene el miedo de la sociedad a que la mujer consiga el pleno desarrollo de sus capacidades y autonomía?: una perspectiva político-educativa de género», *Tendencias pedagógicas*, (11), 233-255.
- Haurren Hirien Sarea (2021): *Lagunekin. Una reflexión y una propuesta de acción*, HHS.
- Herrador-Colmenero, M.; Villa-González, E. & Chillón, P. (2017): «Children who commute to school unaccompanied have greater autonomy and perceptions of safety», *Acta Paediatrica*, 106(12), 2.042-2.047.
- Hillman, M. (1990): *One false move: a study of children's independent mobility*, Policy Studies Institute XLV.
- Holt, N.L.; Lee, H.; Millar, C.A. & Spence, J.C. (2015): «“Eyes on where children play”»: a retrospective study of active free play», *Children's Geographies*, 13(1), 73-88. <https://doi.org/10.1080/14733285.2013.828449>
- Idoiaga, I. & Belasko, M. (2019): «Zer emozio pizten dizkigu hilerokoak?», *Uztaro: giza eta gizarte-zientzien aldizkaria*, 108, 79-94.
- Jamme, H.T.W.; Bahl, D. & Banerjee, T. (2018): «Between “broken windows” and the “eyes on the street”: Walking to school in inner city San Diego», *Journal of Environmental Psychology*, 55, 121-138. <https://doi.org/10.1016/j.jenvp.2018.01.004>

- Jelleyman, C.; McPhee, J.; Brussoni, M.; Bundy, A. & Duncan, S. (2019): «A cross-sectional description of parental perceptions and practices related to risky play and independent mobility in children: The New Zealand state of play survey», *International journal of environmental research and public health*, 16(2), 262. <https://doi.org/10.3390/ijerph16020262>
- Jones, C.H. & Ogilvie, D. (2012): «Motivations for active commuting: a qualitative investigation of the period of home or work relocation», *International Journal of Behavioral Nutrition and Physical Activity*, 9(1), 1-12. <https://doi.org/10.1186/1479-5868-9-109>
- Klein, O. & Licata, L. (2003): «When group representations serve social change: the speeches of Patrice Lumumba during the Congolese decolonization», *Br. J. Soc. Psychol.*, 42, 571-593. <https://doi.org/10.1348/014466603322595284>
- Kearl, H. (2010): *Stop street harassment: Making public places safe and welcoming for women*, ABC-CLIO.
- Kronberger, N. eta Wagner, W. (2000): «Keywords in context: Statistical analysis of text features», in W. Bauer eta G. Gaskell. (argtz.), *Qualitative researching with text, image and sound: A practical handbook*, Sage, Thousand Oaks, 299-317.
- Lam, W.W.; Yao, S. & Loo, B.P. (2014): «Pedestrian exposure measures: a time-space framework», *Travel behaviour and society*, 1(1), 22-30. <https://doi.org/10.1016/j.tbs.2013.10.004>
- Larsen, K.; Buliung, R.N. & Faulkner, G. (2016): «School travel route measurement and built environment effects in models of children's school travel behavior», *Journal of Transport and Land Use*, 9(2), 5-23. <http://www.jstor.org/stable/26203218>
- Leary, S.D.; Ness, A.R.; Smith, G.D.; Mattocks, C.; Deere, K.; Blair, S.N. & Riddoch, C. (2008): «Physical activity and blood pressure in childhood: findings from a population-based study», *Hypertension*, 51(1), 92-98. <https://doi.org/10.1161/HYPERTENSIONAHA.107.099051>
- Lee, H.; Tamminen, K.A.; Clark, A.M.; Slater, L.; Spence, J.C. & Holt, N.L. (2015): «A meta-study of qualitative research examining determinants of children's independent active free play», *International Journal of Behavioral Nutrition and Physical Activity*, 12(1), 1-12. <https://doi.org/10.1186/s12966-015-0165-9>
- Legorburu, I.; Idoiaga Mondragon, N.; Alonso, I. & Berasategi, N. (2022): «Why are you allowed to go to school on your own? Exploring children's voices on independent mobility», *Children & Society*. <https://doi.org/10.1111/chso.12559>
- Leung, K.Y. & Loo, B.P. (2017): «Association of children's mobility and wellbeing: A case study in Hong Kong», *Travel behaviour and society*, 9, 95-104. <https://doi.org/10.1016/j.tbs.2017.07.004>
- López, M.A. (2012): «Los espacios "del miedo", ciudad y género. Experiencias y percepciones en Zaragoza», *Geographicalia*, (61), 25-45.
- Mackett, R.L.; Brown, B.; Gong, Y.; Kitazawa, K. & Paskins, J. (2007): «Setting children free: children's independent movement in the local environment», *Working Papers Series*, 118.
- Medeiros, A.; Clark, A.F.; Martin, G.; Seabrook, J.A. & Gilliland, J. (2021): «Examining how children's gender influences parents' perceptions of the local environment and their influence on children's independent mobility», *Wellbeing, Space and Society*, 2, 100.062. <https://doi.org/10.1016/j.wss.2021.100062>
- Molina-Neira, J. (2017): *Tutorial para el análisis de textos con el software Iramuteq*, DHIGES Ikerketa Taldea, Bartzelonako Unibertsitatea.

- Murray, L. (2009): «Making the journey to school: The gendered and generational aspects of risk in constructing everyday mobility», *Health, Risk & Society*, 11(5), 471-486. <https://doi.org/10.1080/13698570903183889>
- Nuín, B.; Benito, A. & Sorarrain, Y. (2016): *Eskolabidea. Guía para el desarrollo de proyectos locales de caminos escolares*, Eusko Jaurlaritz.
- O'Connor, J. & Brown, A. (2013): «A qualitative study of “fear” as a regulator of children’s independent physical activity in the suburbs», *Health & place*, 24, 157-164. <https://doi.org/10.1016/j.healthplace.2013.09.002>
- Pan, Y. & Pratt, C.A. (2008): «Metabolic syndrome and its association with diet and physical activity in US adolescents», *Journal of the American Dietetic Association*, 108(2), 276-286. <https://doi.org/10.1016/j.jada.2007.10.049>
- Pardos-Mainer, E.; Gou-Forcada, B.; Sagarra-Romero, L.; Calero Morales, S. & Fernández Concepción, R.R. (2021): «Obesidad, intervención escolar, actividad física y estilos de vida saludable en niños españoles», *Revista Cubana de Salud Pública*, 47(2). http://scielo.sld.cu/scielo.php?script=sci_arttext&pid=S0864-34662021000200017
- Prezza, M.; Amici, M.; Roberti, T. & Tedeschi, G. (2001): «Sense of community referred to the whole town: Its relations with neighboring, loneliness, life satisfaction, and area of residence», *Journal of community psychology*, 29(1), 29-52. <https://doi.org/10.1002/1520-6629>
- Prezza, M.; Alparone, F.R.; Cristallo, C. & Luigi, S. (2005): «Parental perception of social risk and of positive potentiality of outdoor autonomy for children: The development of two instruments», *Journal of environmental psychology*, 25(4), 437-453. <https://doi.org/10.1016/j.jenvp.2005.12.002>
- Prezza, M. & Pacilli, M.G. (2007): «Current fear of crime, sense of community, and loneliness in Italian adolescents: The role of autonomous mobility and play during childhood», *Journal of community psychology*, 35(2), 151-170. <https://doi.org/10.1002/jcop.20140>
- Ramanathan, S.; O'Brien, C.; Faulkner, G. & Stone, M. (2014): «Happiness in motion: Emotions, well being, and active school travel», *Journal of school health*, 84(8), 516-523. <https://doi.org/10.1111/josh.12172>
- Reinert, M. (1983): «Une méthode de classification descendant e hiérarchique: application à l'analyselexicale par contexte», *Lescahiers de l'analysedesdonnées*, 8(2), 187-198.
- Riazi, N.A.; Blanchette, S.; Trudeau, F.; Larouche, R.; Tremblay, M.S. & Faulkner, G. (2019): «Correlates of children’s independent mobility in Canada: a multi-site study», *International journal of environmental research and public health*, 16(16), 2.862. <https://doi.org/10.3390/ijerph16162862>
- Rissotto, A. & Tonucci, F. (2002): «Freedom of movement and environmental knowledge in elementary school children», *Journal of environmental Psychology*, 22(1-2), 65-77. <https://doi.org/10.1006/jev.2002.0243>
- Rodó-de-Zárate, M. & i Castany, J.E. (2016): *¿La calle es mía?. Poder, miedo y estrategias de empoderamiento de mujeres jóvenes en un espacio público hostil*, Instituto Vasco de la Mujer, Vitoria/Gasteiz.
- Rodríguez Torres, Á.F.; Rodríguez Alvear, J.C.; Guerrero Gallardo, H.I.; Arias Moreno, E.R.; Paredes Alvear, A.E. & Chávez Vaca, V.A. (2020): «Beneficios de la actividad física para niños y adolescentes en el contexto escolar», *Revista Cubana de Medicina General Integral*, 36(2). http://scielo.sld.cu/scielo.php?script=sci_arttext&pid=S0864-21252020000200010

- Ruiz-Ariza, A.; Manuel, J.; Redecillas-Peiró, M.T. & Martínez-López, E.J. (2015): «Influencia del desplazamiento activo sobre la felicidad, el bienestar, la angustia psicológica y la imagen corporal en adolescentes», *Gaceta Sanitaria*, 29(6), 454-457. <https://doi.org/10.1016/j.gaceta.2015.06.002>
- Sanigorski, A.M.; Bell, A.C.; Kremer, P.J.; Cuttler, R. & Swinburn, B.A. (2008): «Reducing unhealthy weight gain in children through community capacity-building: results of a quasi-experimental intervention program, Be Active Eat Well», *International journal of obesity*, 32(7), 1060-1067. <https://doi.org/10.1038/ijo.2008.79>
- Shabel, P. (2014): «Los niños y niñas como constructores de conocimiento: un caso de investigación participativa», *Revista Latinoamericana de Ciencias Sociales, Niñez y Juventud*, 12(1), 159-170. <https://doi.org/10.11600/1692715x.1218051713>
- Sirard, J.R. & Slater, M.E. (2008): «Walking and bicycling to school: a review», *American Journal of Lifestyle Medicine*, 2(5), 372-396. <https://doi.org/10.1177/1559827608320127>
- Sugiyama, T.; Okely, A.D.; Masters, J.M. & Moore, G.T. (2012): «Attributes of child care centers and outdoor play areas associated with preschoolers' physical activity and sedentary behavior», *Environment and Behavior*, 44(3), 334-349. <https://doi.org/10.1177/0013916510393276>
- Tolley, R. (1990): *The greening of urban transport: planning for walking and cycling in Western cities*, Belhaven Press.
- Tonucci, F. (1997): *La ciudad de los niños*, Graó.
- Tranter, P. & Whitelegg, J. (1994): «Children's travel behaviours in Canberra: car-dependent lifestyles in a low-density city», *Journal of Transport Geography*, 2(4), 265-273. [https://doi.org/10.1016/0966-6923\(94\)90050-7](https://doi.org/10.1016/0966-6923(94)90050-7)
- Underwood, C. (2012): «Encouraging children to walk and ride», *Research Developments*, 27(27), 5. <https://research.acer.edu.au/resdev/vol27/iss27/5>
- Valverde, J.A. (2018): *Propuesta metodológica para el diseño de caminos escolares seguros. Aplicación en el barrio de Benimaclet (Valencia)*, Universitat Politècnica de València.
- Van der Ploeg, H.P.; Merom, D.; Corpuz, G. & Bauman, A.E. (2008): «Trends in Australian children traveling to school 1971-2003: Burning petrol or carbohydrates?», *Preventive medicine*, 46(1), 60-62. <https://doi.org/10.1016/j.ypmed.2007.06.002>
- Villanueva, K.; Knuiman, M.; Nathan, A.; Giles-Corti, B.; Christian, H.; Foster, S. & Bull, F. (2014): «The impact of neighborhood walkability on walking: does it differ across adult life stage and does neighborhood buffer size matter?», *Health & place*, 25, 43-46. <https://doi.org/10.1016/j.healthplace.2013.10.005>
- Vizeu, B. & Bousfield, A.B. (2009): «Social representation, risk behaviours and AIDS», *The Spanish Journal of Psychology*, 12(2), 565-575.
- Watchman, T. & Spencer-Cavaliere, N. (2017): «Times have changed: Parent perspectives on children's free play and sport», *Psychology of Sport and Exercise*, 32, 102-112. <https://doi.org/10.1016/j.psychsport.2017.06.008>
- Westman, J.; Olsson, L.E.; Gärling, T. & Friman, M. (2017): «Children's travel to school: satisfaction, current mood, and cognitive performance», *Transportation*, 44(6), 1.365-1.382. <https://doi.org/10.1007/s11116-016-9705-7>
- Wyver, S.; Tranter, P.; Naughton, G.; Little, H.; Sandseter, E.B.H. & Bundy, A. (2010): «Ten ways to restrict children's freedom to play: The problem of surplus safety», *Contemporary Issues in Early Childhood*, 11(3), 263-277. <https://doi.org/10.2304/ciec.2010.11.3.263>

